


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

NAZIOARTEKO
BIKAIN TASUN
CAMPUSA

CAMPUS DE
EXCELENCIA
INTERNACIONAL

LEHIAKORTASUNA GORPUTZ HEZKUNTZAKO SAIOETAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Urruzuno Loinaz, Idoia.

ZUZENDARIA: Infante Borinaga, Guillermo.

2020-2021 Ikasturtea

LABURPENA

Gorputz Hezkuntzako saioetan, beste ikasgaietan bezala, curriculum ofiziala lantzeaz gain ezkutuko curriculum lantzen da. Honen bidez aspektu ezberdinak jorratzen dira: sexismoa, autoritatea eta menpekotasuna, tristura eta alaitasuna, eta lehiakortasuna. Esanak esan, lan honetan lehiakortasunak izango du garrantzia eta horrek ikasleengan eragiten dituen erantzun ezberdinak aztertu dira. Hala, lehiak sortutako ondorio kaltegarri moduan jasotakoak ezberdinak izan dira: ikasleek arauak hauts ditzakete, ikasle batzuk sufrimendua eta motibazioaren jaitsiera senti ditzakete, ikasleek emozioen hustuketa egin dezakete, agresibitatea erabil dezakete edota kideak baztertzea lehiaketa ez galtzeko konponbide bezala jo dezakete.

Hitz gakoak: Lehen Hezkuntza, curriculum ezkutua, Gorputz Hezkuntza, lehiakortasuna.

RESUMEN

En las sesiones de Educación Física, como en las otras asignaturas, además de trabajar el currículum oficial se trabaja el currículum oculto. A través de este se trabajan diferentes aspectos: el sexismo, la autoridad y la dependencia, tristezas y alegrías, y la competitividad. Dicho lo dicho, en este trabajo la importancia la va a tener la competitividad y se han investigado las diferentes respuestas que produce en los alumnos. Así pues, las consecuencias negativas que se han recogido han sido diferentes: los niños pueden romper las normas, otros pueden sentir sufrimiento y bajón de motivación, también pueden hacer un vaciado de emociones, utilizar la agresividad o apartar algún o alguna compañero/a para no perder la competición.

Palabras clave: Educación Primaria, currículum oculto, Educación Física, competitividad.

AURKIBIDEA

JUSTIFIKAZIOA	4
SARRERA	5
MARKO TEORIKOA	6
1. Curriculuma	6
1.1. Definizioa	6
1.2. Curriculum motak	7
1.2.1. Curriculum formala	7
1.2.2. Curriculum erreala	7
1.2.3. Ezkutuko curriculuma	7
2. Gorputz Hezkuntza eta curriculum ezkutua	8
2.1. Sexismoa	8
2.2. Autoritatea eta menpekotasuna	9
2.3. Tristura eta alaitasuna	9
2.4. Lehiakortasuna eta garaipenaren ideologia	10
3. Lehiakortasuna Gorputz Hezkuntzako saioetan	10
3.1. Lehiakortasunaren ondorio onuragarriak	11
3.2. Lehiakortasunaren ondorio kaltegarriak	13
METODOA	18
Helburua	18
Lagina	18
Datuak biltzeko tresnak	18
Prozedura	19
EMAITZAK	20
Arauak haustea	20
Sufrimendua eta motibazioaren jaitsiera	21
Emozioen hustuketa	22
Agresibitatea	22
Bazterkeria	23

EZTABAIDA	25
PROPOSAMENA	27
BIBLIOGRAFIA	28
ERANSKINAK	32
1. eranskina	32

JUSTIFIKAZIOA

Txikitan peluxeak ohe gainean kokatzen nituen, bata bestearen alboan, eta ni haien parean ipuinak irakurtzen edo eskolan ikasitakoa azaltzen aritzen nintzen, irakasleek egiten zuten modura. Orduztik, irakaslea izan behar nintzela esan dut eta Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatean Lehen Hezkuntzako gradua lau urtez landuz gero heldu da garaia. Kirolzalea naiz eta horregatik Gorputz Hezkuntzako minorra landu dut. Eraginez, Gradu Amaierako Lana harekin lotutakoa izango da. Gaia Gorputz Hezkuntza eta curriculum ezkutua delakoan, nire lana lehiakortasunean oinarrituko da, lehia osasungarri baten bila.

Gai honen inguruko lan hau betetzeko arrazoi nagusiak honekiko interesa eta honi buruz dagoen informazio falta izan dira. Ikasle izan nintzenean nire kide batzuk oso lehiakorrek ziren eta nik horren ondorioak ez nituen bat ere ez gustoko. Areago, praktikaldia egin dudan bitartean horrelako gertaerak bizi ditut eta ikasle batzuk nazkaturik zeuden. Hortaz gain, irakasleei laguntza eskaintzeko honen inguruko informazio eskasa dagoela esango nuke eta horren ondorioz gai hau landu behar delakoan nago.

Halaber, nire begirada lehiakortasun handiagoa izan duten ikasleengan jarri dut, izan ere hauek izan dira jolasaren giroa aldatu dutenak. Ezezik ere, irakasleak arreta jaso du hark lehiakortasun hori kudeatzeko izan duen jokaera behatuz eta berarekin gaiaren inguruko elkarrizketa bat izanez.

Hala ere, nire Gorputz Hezkuntzako irakasle moduko esperientzia murriztua da eta egoera gutxi bizi ditut, baina egoera horiek ikasten lagundu nautela esango nuke, batez ere biziak gatazken antzekoak aurrerantzean landu behar izango ditudalako.

Bestalde, Gorputz Hezkuntza kontzeptua entzundakoan jolasak eta kirolak datozkigu burura, hau da, alderdi fisikoa, baina lan honen helburua da argitaratzea ikasgaiak arlo soziala eta emozionala ere lantzen dituela.

Amaitzeko, gogoraraztea ideia hau curriculum ezkutua lantzen duen zerbait dela eta hiritarrak hezi nahi dugulakoan baloreei ere garrantzia eman behar zaiela, edukiei ematen zaien bezala edo gehiago.

SARRERA

Lehia edonon ikus dezakegun praktika bat da. Izaki bizidun guztiak etengabe lehiatzen ari dira, eremua babesteko, janaria lortzeko, gaitasunak erakusteko... Hori horrela, gizakion artean ere lehiatzeko joera dago eta txikitatik eskuratzen den zerbait da.

Baina jokaera hori kontrolatzen jakitea komenigarria da eta eskolaren laguntzaz hura lortzea posible izango da. Eskolan irakasleak egongo dira ikasleak laguntzeko prest eta curriculuma bezalako baliabidea izango dute prozesu horretan erabiltzeko. Curriculumak prozesu hura gidatzen du, baina ez dago curriculum mota bakarrik: curriculum formala edo ofiziala, curriculum erreala eta curriculum ezkutua daude. Guzti hauek ikasgai guztietan egoten dira, Gorputz Hezkuntza barne. Honetan, kalean eman daitezkeen egoera errealak gertatzen dira. Egoera horiek anitzak izan daitezke, baina hurrengoak curriculum ezkutuko gai nabarmenak dira: sexismoa, autoritatea eta menpekotasuna, tristura eta alaitasuna, eta lehiakortasuna eta garaipenaren ideologia. Azken hau izango da lan honetan aztertuko dena.

Hori horrela, lehiakortasunak Gorputz Hezkuntzako ikasgaien duen eragina aztertu da tresna ezberdinak erabiliz: teoria, *Campeones* filma, ikastola bateko Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin elkarrizketa eta ikastola berean praktikaldian jasotako eguneroko bat.

Batez ere, lehiak sortutako ondorio kaltegarriak aztertu dira. Hasteko, ikasleek arauak hauts ditzakete helduen arreta erakarriz. Jarraitzeko, Gorputz Hezkuntzako saioak emandako esperientziak sufrimendua eta motibazioaren jaitsiera eragin ditzake hainbat ikaslengan eta, eraginez, aurrerantzean jarduera fisikoa alde batera utz dezakete. Ondoren, ikasleek emozioen hustuketa egin dezakete emozioak kontrolatzeko zailtasunak dituztelako emozio ezegonkorrak izateagatik. Gero, irabazteko helburua lortzea zaila iruditzeagatik jokaera agresiboetaz baliatzea ideia ontzat har dezakete eta indartsuenaren legea jokoan hasten da. Azkenik, jolas batean kideak baztertzea lehiaketa ez galtzeko konponbide bezala jo dezakete, baina bide hori eraso baten zeharkako seinale bat izan daiteke.

MARKO TEORIKOA

1. Curriculumuma

Curriculumuma irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan erabiltzen da eta prozesuan zehar bete behar diren helburuak, landu beharreko edukiak eta ebaluatzeko irizpideak biltzen ditu.

1.1. Definizioa

Curriculum hitza latinez *curro* aditzetik dator eta “ibili” esan nahi du. Eraginez, curriculumuma hurrengo eran uler daiteke: ikasteko eta osatzeko jarraitu behar den bidea (Uquillas, 2015).

Hala ere, kontzeptu horren definizio zehatzik ez dago autore ezberdinek esanahi ezberdinak sortu dituztelako. Esanahi horiek ikuspuntu edota ideologiaren arabera sortutakoak izan daitezke eta elkarrekin harremana izan dezakete, ala ez. Topatzen diren definizioen artean hurrengoak daude (Gimeno, 1998):

- Curriculumuma definitzeko bi bide daude: alde batetik, ikasleak ikastetxean jasotzen duen esperientziaren gida, hau da, helburu batzuk betetzeko esperientzien planifikazioa, eta bestetik, edukien definizioa, planen bilduma, helburuen zehaztapena eta kulturaren islada.
- Curriculumuma ikus daiteke planifikatutako jardueren programa bezala, sekuentziatuta eta antolatuta jasotzen dituen, edo ikasleak gainditu behar dituen ezagutzen multzoa bezala.

Esan bezala, curriculumuma definitzeko saiakera asko egon dira aspaldian, eta Eusko Jaurlaritzak (2015) ere egin du berea: curriculumuma helburu batzuk jarri eta horren arabera edukiak eta lorpen adierazleak proposatzen dituen hezkuntza-programa da.

Orduan, curriculumuma Administrazioak eskaintzen duen erabilpen praktikorako dokumentu teoriko bat da, irakasleek lan-erreminta bat bezala jasotzen dutena eta non hezkuntza-baliabide ezberdinak eskaintzen diren erraztasunak emateko eta sor daitezkeen arazoei irtenbideak bilatzeko (Jiménez, 2011).

Areago, hura osatzerako orduan negoziazio bat aurrera eramaten da tartean dauden sektoreen artean, eta bertan lantzen diren proposamenak momentuan dauden behar politikoei eta sozialei erantzunak ematera bideratzen dira (Uquillas, 2015).

Hori horrela, curriculumak inoiz ez da bukatuta egongo eraginkorra izan behar bada. Izan ere, hura Administrazioak proposatzen du ikasleak nolakoak izango diren, zenbateko denbora izango duten, etab. suposatuz eta ikasturtea aurrera joan ahala irakasleek egokitzapenak egiten joateko beharra izango dute ikastetxe edota ikasgela bakoitzaren errealitatera egokitzeko (Jiménez, 2011).

Dena den, nahiz eta curriculumak gauza ezberdinak eskaini (helburua, edukiak eta lorpen adierazleak) batez ere alderdi teorikoa jasotzen da. Errealitatean egoera edo ekintza ezberdinak bizi daitezke eskola-porrota, ikasleen desmotibazioa eta diziplina falta bezala. Argi dago ikasleei eskaintzen zaienak lotura zuzena duela curriculumarekin, baina nola eskaintzen zaien ere garrantzitsua da eta haien interesak kontuan izan behar dira ikaskuntzarengandik ihes egin nahi izan ez dezaten (Gimeno, 2010).

1.2. Curriculum motak

Curriculumaren inguruan mintzatzean, kontuan hartu behar da curriculum mota bat baino gehiago daudela: formala, erreala eta ezkutua (Uquillas, 2015; Vílchez, 2004).

1.2.1. Curriculum formala

Curriculum ofiziala bezala ere ezagutzen da. Administrazioak eskaintako dokumentuari egiten dio errefrentzia, plana esplizituki eta ikusgarri biltzen duena era teoriko batean.

1.2.2. Curriculum erreala

Curriculum mota honek curriculumaren hiru aldaera ezberdin jasotzen ditu:

- Curriculum praktikoa: ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren berariazko ekintza.
- Burututako curriculumak: lorpenak, eta irakasleen eta ikasleen emaitzak adierazten ditu.
- Curriculum baliogabea: programaziotik baztertu dena, hau da, egon behar da, baina ez dago.

1.2.3. Ezkutuko curriculumak

Curriculum mota hau inplizitua eta praktikoa da. Curriculum formalak aipatzen ez dituen aspektuak biltzen ditu, ikasleen eta irakasleen jokaerak eta baloreak bezala.

Planifikatu gabeko ikaskuntzak esperientzia hezigarri guztietan ematen dira eta gehienetan ageriko ikaskuntzek baino indar handiagoa izaten dute (Tinning, 1992). Jasotako ezagutza horiek meheak eta gehigarriak izaten dira eta eraginez etorkizuneko jarrerak edo jokaerak eraiki ditzakete.

Ilido berean, errespetua, ekitatea eta ezberdinatsuna protagonismoa hartzen duten balore batzuk dira (Devís, 2018). Balore horiek ez doaz jarduera fisikoarekin loturik, banakoen jokaerekin baizik, horregatik irakasleak saiatu behar dira zaintzen zer nolako ezkutuko mezuak transmititzen dituzten Gorputz Hezkuntza irakasteko bidean (Casado, 2010; Tinning, 1992).

Laburtuz, ezkutuko curriculumak barne hartzen ditu eskolan nahi gabe transmititzen diren mezuak, harremanak dituztenak sinesmenekin, aurreiritziekin, etab. (Rodríguez, 2017).

2. Gorputz Hezkuntza eta curriculum ezkutua

Gorputz Hezkuntza bi hitzez osatutako kontzeptua da: “gorputz” eta “hezkuntza”. “Gorputza” gizakien eta animalien materiako osagarri (Euskaltzaindia, d.g., 1 definizioa) bezala hartzen da eta “hezkuntza” banakoa gizartean bizitzeko prest jartzea eta trebatzea (Euskaltzaindia, d.g.) bezala.

Hortaz, lehen Gorputz Hezkuntza gorputza hezteko baliabide bat bezala definitu zuten (Amat eta Batalla, 2000), baina gaur egun ikaslea era integral batean hezten duen ikasgaitzat hartzen da (Eusko Jaurlaritzak, 2015) eta bizitza errealean ematen diren egoerak ematen dira (Lagardera, 1999).

Hori horrela, bertan aurrera eramaten den jarduera fisikoa ez da bakarrik energia gastua eragiten duen mugimendua, esperientzia pertsonala eta praktika soziala ere bada (Devís, 2018), praktikatzailearen gozamina bilatzen duena (Tinning, 1992).

Gorputz Hezkuntzako saioetan curriculum ezkutuko parte diren ikaskuntza batzuk bereiz daitezke: sexismoa, autoritatea eta menpekotasuna, tristura eta alaitasuna eta, azkenik, lehiakortasuna eta garaipenaren ideologia (Tinning, 1992).

2.1. Sexismoa

Sexismoa gizartean oso zabalduta dagoen arazo bat da, hezkuntzan oso nabarmena dena. Arazo hori ikus daiteke, adibidez, jardueretarako taldekatzeak egiterakoan sexua oinarri moduan hartzerakoan edo sexuaren arabera itxaropen ezberdinak eraikitzerakoan.

Areago, gure kultura funtsean patriarkala da eta gorputz hezkuntza era patriarkal batean sortu zen, sexuaren araberako bereizketa indartuz.

Eraginez, testuinguru honetan merezi du hausnartzea gorputz hezkuntzan bizitako kulturaren hainbat alderdi, horietako bakoitza patriarkatuaren adierazpen bat den bitartean.

Alde batetik, kezka garria da gorputz hezkuntzako giro lehiakor eta indibidualistak mutil eta nesken duen eragina. Izan ere, Gorputz Hezkuntzako ohiko saio batean aurrera eramaten diren jarduerak indarrean eta bere deribatuetan, potentzian eta abiaduran oinarritzen dira, mutilaren gailentasunaren ideologia sendotuz.

Beste alde batetik, patriarkatua mantentzen laguntzen duen dualismoa indartzen du gorputz hezkuntzak: gorputza eta burua, lana eta jolasa, eta domeinu pribatu eta publikoen bereizketa patriarkatuaren adierazpenak dira. Neska pribatutasunarekin, familiarekin eta emozioekin lotzen da, mutila publikotasunarekin, lanarekin eta politikarekin lotzen den bitartean.

Azkenik, emakumeen eta gizonen gorputz irudiek duten eraikuntza sozialari dagokionez, neskaren gorputza kontsumorako artikulutzat hartzea ideologia patriarkalaren parte da.

2.2. Autoritatea eta menpekotasuna

Askotan, irakasleak boterea du eta hark irudikatzen duen autoritateari men egin behar zaio, ezer ere ez zalantzan jarri gabe. Era horretan ikasleek ikaskuntzarako irakaslearen menpe egotea ikasten dute eta luzaroan ez dira gai izango irakaslearen zuzenketa eta antolakuntza gabe lan egiteko.

Irakasle askorentzat gorputz hezkuntzako irakaskuntzak antolakuntza-arazo handiak ditu eta lana errazago bilakatzeko asmoz egoki deritzote kontrol totala eskuratzea erabaki guztiak hartuz. Hala ere, honek zainketa behar du eta zainketa horrek estresa eragin dezake.

Areago, irakaslearen autoritatea ez du autoritarismoaren sinonimoa izan behar. Posible da arau gutxiagoko kontrola ezartzea irakaslearen eta ikastaldearen arteko harremana sortuz. Horrela, ikasleek erabakiak hartzeko aukera izanez, izaki independenteak izaten ikasiko dute.

2.3. Tristura eta alaitasuna

Irakasle batzuk saioaren helburu izaten dute ikasleek hura goza dezaten, baina horretarako banakoen bizi-esperientziak neurtu behar dira. Izan ere, ikasle batzuk harrapaketa goiztiarra jasaten dute, beste batzuk baloiarekin kolpatuak izatearen beldur dira, pilota hartzeko zailtasunak dituzte...

Oinarrizkoa da ikasleen ikuspuntutik saio batek beraiengan izan dezakeen eraginaren inguruan hausnartzea, praktika batzuk itxura onargarria izan dezaketelako taldearentzat, baina mingarria ikasle bakartuentzat.

Gorputz Hezkuntzako saioak ideologia indibidualista eta lehiakorraren laborantza izan dira fisikoki gai diren ikasle lehiakorren indibidualtasuna indartzeko joera egon delako. Hau ez da saihestu behar den zerbait bezala ikusten hausnartzeko denbora eskaini ezean, eta horrek okerreko mezu ezkutua zabaltzen die ikasle horiei.

2.4. Lehiakortasuna eta garaipenaren ideologia

Lehia edonon topa dezakegun zerbait da, bizitzan etengabe gabiltzalako lehiatzen: ahalik eta produktu gehien saltzen dituen marka hobea izango da, hainbat pertsonak "lagun hoberen" bat izaten dute, batez ere kirol lehiakorrak ikusten dira telebistan...

Hori horrela, gaitasunengatik edo lorpenengatik nabarmendu izateko, kasle batek edozer egin dezake, harrapatua ez izateko bezala, eta irakaslearen erantzunik ez jasotzean eginkizun hori ontzat hartzen ari da, nahiz eta jolas garbiaren inguruko hitzaldiak entzun.

Gainera, irakasleak jolas batean irabazteari garrantzia emanaz gero, ikasle batzuk animatuko dira, beste batzuegan kontrako eraginak sortu bitartean, besteak baino gutxiago direla sentiaraziz, adibidez.

Lehiakortasuna lantzea beharrezkoa da, gelatik kanpo lehia asko bizi dutelako. Eraginez, lehiakortasunaren alderdi garrantzitsuena kudeaketa da. Hala, irakasleak ikasle guztien esperientzia errealak ezagutu beharko ditu haiek motibatuzeko eta eragin negatiboak gutxitzeko.

3. Lehiakortasuna Gorputz Hezkuntzako saioetan

Lehia zerbait betetzeko egiten den ahalegin arina (Euskaltzaindia, d.g., 1 definizioa) edo indarreko txapelketa (Euskaltzaindia, d.g., 2 definizioa) da. Hala, gorputz hezkuntzako

lehia horrela ulertzen da: bi indarren arteko borroka, zeinetan baten arrakasta bestearen porrotean oinarritzen den (Devís, 2018).

Ezekik ere, lehiakortasuna hurrengo moduetan uler daiteke (Devís, 2018):

1. Jolas batetaz gozatzeko ezinbesteko osagaia.
2. Helburu bat lortzeko sari partekatua.
3. Lan bat ondo betetzearengatik izandako taldeko edo banakako arrakasta.

Gorputz hezkuntzako saioak banakotasunaren eta lehiakortasunaren ideologia lantzeko erreminta izan dira (Tinning, 1992). Jolasen bidez irabazleak eta galtzaileak etengabe sortu ditu fisikoki gai eta lehiakorrak diren ikasleen banakotasuna indartzeko joera egon delako (Durán, 2013; Tinning, 1992). Hortaz, berdintasun batetik abiatzen da desberdintasun batera iristeko (Durán, 2013). Hala ere, gerta daiteke emaitza berdinak lortzea eta berdinketa batekin bukatzea (Andueza, 2015).

Gaur egun, gorputz hezkuntzako saioetan lehia egotea edo ez egotea eztabaidan dagoen gai bat da (Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020). Alde batetik, autore batzuen arabera lehiaketa ondo ulertuta baloreetan oinarritutako hezkuntzarako tresna izan daiteke (Amat eta Batalla, 2000) eta garrantzitsua da hark motibazioan eta afektibitatean dakartzan onurengatik (Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020).

Beste aldetik, aldiz, autore batzuek diote beti ez duela ekarpen mesedegarririk egiten helburuak ez direlako behar bezala betetzen (Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020) eta jarduerak efektu positiboak izan ditzakeen bezala, lehiakortasunak haiek baliogabetu ditzakeela (Amat eta Batalla, 2000). Gainera, gorrotagarri deritzote bakoitzaren garaipenaren eta bestearen galeraren balorea transmititzeagatik, jarrera berekoiak sustatzen direlako (Durán, 2013).

3.1. Lehiakortasunaren ondorio onuragarriak

Esanak esan, oinarritzko behar psikologikoak, autonomia, konpetentzia eta sozializazioa bezala, gizakiak sortzetik duen zerbait dira eta horietan lagundu ezean, banakoak motibazioan kontrako eraginak paira ditzake (Navarro, Cons eta Eirín, 2018). Aldiz, aipatutako laguntza jasoz gero, banakoa eraginkorki lan egingo du eta era egoki batean garatuko da.

Hori horrela izanik, lehiakortasunak baditu bere onurak eta horiek jarduera lehiakor baten eraginez emango dira: eraginkortasuna, esaterako. Lehia sustatzen duen jarduera fisikoak hurrengo alderdietan lagun dezake (Durán, 2013; Amat eta Batalla, 2000; García, Sánchez eta Ferriz, 2021):

- Adiskidetasunean.
- Kidetasunean.
- Sozializazioan.
- Talde-lanean eta kooperazioan.
- Konpromezuan.
- Arauenganako eta aurkarienganako errespetuan.
- Motibazioan.
- Asebetetzean.
- Jarduera fisikoarenganako atxikimenduan.

Gainera, ezaguna da haurrek garaipenaren bidez hainbat gauza ezberdin beregana ditzaketela, segurtasuna haiengan eta galtzaileekin eskuzabaltasuna bezala, baina porrotaren bidez ere badute zer eskuratu: frustrazioak kudeatzeko ohitura sana eta hobetzeko norberaren baliabide berrien bilaketa, esaterako (Durán, 2013).

Guzti horrekin, ondorioztatzen da lehiakortasuna ez dela kaltegarria izan behar eta garrantzitsuena hura kudeatzea dela (Tinning, 1992). Izan ere, jarduera fisikoak edo jolasak gatazkak, indarkeria, intolerantzia eta bazterkeria indar ditzakeen bezala, jokaera demokratikoen garapenaren iturburua izan daitezke (Águila, d.g.). Horretarako, adibidez, irakasleak ikusi beharko du nortzuk edo zein taldek jasotzen duten mesedea eta zeintzuk kaltea, praktika jakin batzuen bidez, denek ikasgaiaren onuretz goza dezaten (Devís, 2018).

Orduan, hori kudeatzeko irakaslearen jokaerak garrantzi handia izango du (Hellín, 2007) hark zintzotasuna lantzeko erronkari aurre egin beharko diolako kiroltasuna posible izan dadin (Durán, 2013). Hori lortzeko hurrengo izan beharko du kontuan (Hellín, 2007; Durán, 2013; Amat eta Batalla, 2000; Casado, 2010; Tinning, 1992):

- Kiroltasuna landu egoera lehiakorretan zein kooperatiboetan.

- Motibazio-giroa sortu errekonozimenduaren bidez.
- Praktiken diseinuak eta taldekatzeak.
- Errendimenduari garrantzia kendu prozesuari eman bitartean.
- Pertsonari balioa eman: bere interesak eta beharrak kontuan izan.
- Bai keinuen bidez, bai ahotsaren bidez, bidalitako mezuak zaindu.

Ikasleen eta irakaslearen artean sortzen diren harremanek ere eragina dute. Era horretan, harreman horiek zaindu beharko dira kontrolatzaile izan beharrean laguntzaile izateko eta autoritarioa izan beharrean autonomia eskaintzeko (Hellín, 2007). Txapelketak gidatu behar dituen printzipio nagusia da ekintzaren arauetako errespetu maximoa (Durán, 2013).

Areago, irakasleak arreta eman behar die saioetan gerta daitezkeen lehiaketa ez planifikatuekin. Izan ere, jarduera psikomotorrak lantzerakoan zeregina arrakastarekin betetzeak garaipena adieraz dezake eta ez lortzeak, ordea, porrota. Orduan, ikasleen artean konparaketak egiten dira eta emaitzen arabera haiek euren sailkapen propioa egingo dute (Andueza, 2015).

3.2. Lehiakortasunaren ondorio kaltegarriak

Ez da kasualidadezkoa lehiakortasunaren zentzu honek kiroltasunik gabeko jokaerak eta jokaera tranpantiak egitera gidatzen duela eta helburua betetzeak (irabaztea) “denak balio du irabazteko” justifikatzen duela (Durán, 2013). Eraginez, lehiakortasunak eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak arreta eman behar zaie. Konfiantza jaistea eta garaipenaren ideologia indartzea (“irabaztea gauza garrantzitsuena da”), besteak beste, ondorio horietako batzuk izan daitezke.

Orokorrean, jarduera fisiko edota kirol guztiek bereizgarri komun bat dute bere barne-logikan, egoera motorra aurkako konfrontazio bezala definitzen duen hori, non arautegiak onartutako gogorkeria-maila modalitate batetik bestera nabarmenki desberdintzen den, baina kasu guztietan bultzada erasotzaile baten bidez emozioen tentsioaren hustuketa berarekin ekartzen duena (Lagardera, 1999). Hortaz gain, emaitzek gizakiaren alderdi garrantzitsua irudikatzen dute, izan ere, hauek gaitasun maila erakusten dute eta motibazioan eragiten dute (Hellín, 2007). Orduan, emaitzek porrota adierazten dutenean motibazioa jeitsi dezakete.

Are gehiago, lehiakortasuna emozioen gatazken eremu bezala azaldu zen eta gaur egungo gizartean emozioen kontrolaren galera nolabait onartzen duen gertaera kolektibo bezala sendotu da (Lagardera, 1999). Lehia sortarazten duten jolasetan emozioen irakinaldia, batez ere bukaeran ematen da, lehia eragiten ez duten jolasen kasuan ez bezala, azken hauetan emozioak esperientziekin loturik doazelako eta parte hartzaileek jolasaren alderdi ludikoa ardatz moduan hartzen dutelako (Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020).

Esanak esan, hurrengoak dira lehiakortasunak izan ditzakeen ondorio kaltegarriak (Tinning, 1992; Lagardera, 1999; Hellín, 2007; Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020; Águila, d.g.):

- Arauen apurketa.
- Motibazioaren jaitsiera.
- Emozioen hustuketa.
- Sufrimendua.
- Agresibitatea.
- Bazterkeria.

Behin aipatuta, horietan sakontzera ekingo zaio, arauen apurketatik hasita bazterkeriarekin bukatu arte.

Hasteko, arauen apurketa posible izateko arau batzuk behar dira eta jolas bakoitza eskubidez eta debekuz osatutako bere arau-sisteman oinarritzen da (Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020). Hala, kiroltasunez lehiatzeko eta konfrontazioa posible izan dadin arau batzuk onartu behar dira, bestela, txapelketa ezin izango litzateke aurrera eraman (Durán, 2013).

Bestalde, jolasaren helburuak jokaeren erabakitzaile bezala ikus daitezke (Hellín, 2007). Irabaztea jarduera fisikoaren xede nagusitzat hartzen delakoan, argi dago irabaz daitekeela era zintzo ala lizun, zuzen ala zuzengabe, batean, baina zintzotasun edo zuzentasun hura bigarren plano batean geratuko dira benetako helburu hori dagoen bitartean: garaitzea (Durán, 2013).

Hori dela medio, ikasleek arauak hauts ditzakete garaipenaren bila doazela, lehiakortasunez beteriko momentu batean edozer baliagarria izan daitekeelako irabaztea helburua bada (Tinning, 1992).

Areago, bi arau mota ezberdinak topa ditzakegu: kontzeptualak eta jarrerazkoak (Agüero-SanJuan, 2015). Lehenengoek jolasaren zehazten dituzte eremuaren ezaugarriak, taldekatzeak eta iraupena, eta bigarrenek, aldiz, aginduzko arauak edo permisiboak ezartzen dituzte, esaterako onar daiteke korri egiteko keinua egitea ziria sartzeko, baina ez kideak iraintzea.

Ondorioz, arauak haustearen adibide ditugu harrapatua izatean ez adituarena egitea jolasean jarraitzeko eta jolas-eremutik ateratzea ihes egiteko, besteak beste.

Jarraitzeko, motibazioa zer den ezagutu behar da. Motibazioa, latinetik *motivus*, mugitzen gaituena da, hau da, gizakiaren jokabidearen eragilea (Carrillo, Padilla, Rosero eta Villagómez, 2009). Nahi bat sortzen denean tentsio egoera bat agertzen da eta horrek izakia mugiarazten du nahi hura asetzeko, jokabidea eta energia-maila zehaztuz.

Hala ere, hau borondateari ere lotzen da. Eraginez, motibazioa zenbait helburu betetzeko esfortzua egitera bultzatzen duen borondatea (Pérez, 2008) bezala defini daiteke.

Badira motibazioa sustatzen duten eragile ezberdinak: arrazoizkoak, emozionalak, egozentrikoak, altruistak, erakarpenezkoak eta errefusazkoak, besteak beste. Baina alderdi horiek ere motibazioaren jaitsiera eragin dezakete (Pérez, 2008). Azkeneko hau oztopoak konpontzerakoan estutasunaren antzeko sentimendua bezala definitzen da, atsekabea sortzen duena energia eta interes-maila jaitsiz.

Motibazioaren jaitsiera jasan dezakete tranpen bidez galdu duten ikasleek, helburua lortzeko zailtasun handiak ikusten dituzten ikasleek, ingurutik mezu ezkorrak jasotzen dituztek ikasleek eta jarduera gustoko ez duten ikasleek, esaterako.

Ondoren, emozioei erreparatuz, hurrengo ezagutzea komeni da. Emozioak izakiek sentitzen dituzten erantzunak dira (Osasun Ministeritza, 2020): alaitasuna, tristura, haserrea... Denengatik ezagunak dira, baina konplexuak dira kontrolatzeko zailak izan daitezkeelako.

Egoera ezberdinek emozio ezberdinak eragiten dituzte eta kasu guztietan egoerari aurre egiten laguntzen dute (Osasun Ministeritza, 2020).

Gorputz Hezkuntzako saioetan emozioak ikusgarri geratzen dira, batez ere lehiaketa dagoenean. Lehiakortasuna sustatzen denean emozioen intentsitateak handitzen dira irabaztearen baldintzapean (Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020).

Emozioen intentsitate handiaren ondorioz, horietako batzuk ikus daitezke jarduera fisikoa egiterakoan: antsietatea helburua ez lortzean, nahasketa jarduera modu egokian uler ezean, atsekabea itxaropenak asetu ezean, haserrea mina jasatean, etab.

Areago, emozioen artean sufrimendua biltzen da. Hau emozio konplexu bat da. Atsekabea, ezinegona, min fisiko eta psikologikoa, gosea... guzti horiek sufrimendua izan daitezke intentsitate handikoak direnean, edo beste emozio batekin nahasten direnean, eta epe motzean konponbiderik ez dagoenean (Spaemann, 2008).

Sufritzeko era asko daude. Ikasle batzuk sufritzen dute harrapaketa goiztiarra jasaten dutenean, baloiarekin kolpatzearen beldur direnean, baloia hartu ezin dutenean, praktika zikinengatik porrot egiten dutenean...(Tinning, 1992). Eta sufrimendu horrek zerbait egitera animatu beharrean pasibotasunera bultzatzen du (Spaemann, 2008), motibazioa jaisten denean bezala.

Guzti horrek, laguntzetik urrun, atsekabeko eta estreseko egoerak eragiten ditu arrakastaren bila goazenean eta blokeatzen gaitu gudan frustrazio handia eraginez (Durán, 2013). Azken batean, frustrazio hori adierazteko bide ezberdinak erabiltzen dira: oldarkortasuna, kexa, gainerakoengan mespretxua, etab.

Gero, agresibitatearen inguruan jakitea lagungarria izango da. Agresibitatea latinezko *aggressare* hitzetik dator eta eraso esan nahi du (Loza eta Frisancho, 2010). Hitz hau erabiltzean besteei min fisiko eta psikologia eragiten dien jokaerari egiten zaio errefrentzia.

Jarrera oldarkorra aitzitik egon da eta animaliengan ikusia izan da eremua defendatzerakoan, bizirauteko edota ugaltzeko aukerengatik lehiatzerakoan. Hortaz, besteei min eragiteko nahia arrazoi ezberdinengatik motiba daiteke: mina, frustrazioa eta beldurra besteak beste (Loza eta Frisancho, 2010).

Gorputz Hezkuntzako saioetan aurkaria duten elkarrekintzek agresibitatea bultzatzen dute aurkariak eraisteko (Lagardera, 1999). Tentsio emozionala handia izan daiteke eta frustrazioaren pisua handituz gero erantzun oldarkorra handituko da (Lagardera, 1999; Águila, d.g.). Gainera, askotan agresibitatea adierazten duen ikasle batek istilu ezberdinak bizi ditu eta horiek metatu ditu lehertu duen arte (Águila, d.g.).

Agresibitatearen eragile izan daitezke aurkariak ziria sartzean minduta sentitzea, behin eta berriro harrapatzaileek ikasle berdina harrapatzea eta galtzearen beldur izatea, adibidez.

Azkenik, bazterkeria dugu. Honek adierazten du ikasle batzuk ikastaldean ez direla oso onartuak eta ikasleak bertan duen estatusari egiten dio erreferentzia, kideen onarpen-mailari (Estévez, 2005).

Berdinen arteko harremanak sarritan ematen dira jarduera fisikoa praktikatzan den testuinguruan. Hala eta guztiz ere, harreman horiek beti ez dira positiboak izaten. Ikasle batzuentzako berdinen arteko harremanek arazoak izaten dituzte, bazterketa sufritzen dute (García eta Juan, 2000).

Gorputz Hezkuntzako siaoan jolasetan eta kiroltan parte hartzean hurrek euren artean gaitasunen konparaketa egiten dute, berdinen artean duten estatusa zehazteko. Gaitasun fisikoa beraiek beste gaitasunen gainetik nabarmentzen duten ezaugarria da eta, eraginez, horrek pisu handia izaten du estatusa zehazterako orduan (García eta Juan, 2000).

Estatus horren beheko partean kokatzen dira ikasle baztertuak eta horiek autoestima baxua dute jarduera fisikoaren arloari dagokionez, ez dute jardueretaz asko gozatzen, giroa ez dute onuragarritzat hartze eta ase gabeko deritzote kideekin izaten dituzten harremanak (Estévez, 2005).

Jarduerak lehiakorak diren bitartean, non arrakasta besteen porrotean oinarritzen den, gaitasun fisiko baxuena dutenek alde batera geratuko dira. Horren adibide dugu patio garaian ikasleek taldeak sortzen dituztenean: jardueran trebeenak izango dira liderrak eta haien sortuko dituzte taldeak. Prozesu horretan, gaitasunaren jerarkia kontuan izango dute eta traketsenak bukaeran izango dira hautatuak, bigarren mailako rol bat izango dute edo ezin izango dute jolastu ez dietelako utziko (García eta Juan, 2000).

METODOA

Helburua

Lan honen bidez helburu ezberdinak bete nahi dira, baina helburu orokorra hurrengoak izango da:

- Ikastolako Gorputz Hezkuntzako saioetako errealitatea ezagutzea lehiakortasun egoerak identifikatuz eta aztertuz.

Lagina

Ikerketa hau Gipuzkoako ikastola batean bete da 6 astez. Ikastola honek Lehen Hezkuntzarako bi eraikin ditu eta ni egondakoan 300 ikasle inguru daude, 3. eta 6. maila bitartekoak. Maila bakoitzean hiru lerro daude eta gela bakoitzeko 25 ikasle inguru. Hala, ikerketa honetan 5. mailako ikasleak izan dira kontuan, 75 ikasle inguru.

Bestalde, Gorputz Hezkuntzako irakaslea ere protagonista izan da. Hau herriko mutil gazte bat da, esperientzia luzerik ez duena duela lau urte Lehen Hezkuntzako graduatu zelako. Hala, irakasle honek ez du esperientzia luzerik, ordezkapen gutxi egin baitu, baina aurten urte osoko ordezkapena izan du.

Laburtuz, Gorputz Hezkuntzako irakasleaz gain 5. mailako ikasleak protagonistak izango dira ikerketa honetan. Esan bezala, maila bakoitzean 3 adar daude eta adar bakoitzeko 25 ikasle inguru, guztira 75.

Datuak biltzeko tresnak

Ikerketak kuantitatiboak eta kualitatiboak izan daitezke. Lehenengoaren arabera errealitate bat dago eta hura ezagutzeko estadistikan oinarritzen den datuen bilketa egiten da, grafiko batekin esaterako (Balcázar, González-Arratia, Gurrola eta Moysén, 2013). Bigarrenak, aldiz, errealitatearen eraiketa egiteko asmoz behaketaz baliatzen den ikerketa induktiboak dira. Behaketatik hasita datu deskribatzaileen ekoizpen bat egiten du eta, eraginez, lortutako datuak ezin dira orokortu, perspektiba guztiak baliagarriak izanik. Informazioa bizipenetatik, pertzepzioetatik, sentimenduetatik eta emozioetatik dator (Cueto, 2020; Balcázar, González-Arratia, Gurrola. eta Moysén, 2013).

Hori horrela, lan honetan testuinguru horretan dagoen errealitatea ezagutzeko bideratutako ikerketa kualitatiboa izan da datuak biltzeko erabilitako tresnak hurrengoak izan

direlako: egunerokoa, Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin elkarrizketa bat, *Campeones* filma eta teoria.

Alde batetik, egunerokoa jaso da, non lehiakortasunarekin bizitako gertaerak bildu diren. Egunerokoa ikerketarako oinarritzko tresna bat da informazio adierazgarria jasotzeko baliagarria dena eta idazleak bizitako errealitatea islatzen duena (Jurado, 2011). Halaber, lehiakortasunarekin loturiko jasotako gertaerak dira koherentzia faltagatik edo ezusteko erantzunak eragiteagatik zalantzak edo ustekabeak sorrarazi dituzten gertakari adierazgarriak (Costa eta Almendro, 2015).

Beste alde batetik, gorputz hezkuntzako irakaslearekin elkarrizketa egin da. Elkarrizketa lengoia adierazten duen, eta ahoz eta era txandakatu batean gizakiak erabiltzen duen elkarrekintza bat da (Valls, 2002). Hori horrela, irakasleak duen iritzia jasotzeko izandako hizketaldi bat jaso da eta bertan eskuratutakoa saioetan gertatutakoarekin lotu da.

Bestalde, *Campeones* filma izan da kontuan. Javier Fesser zuzendariak 2018. urtean bideratutako filmak garrantzia izan du hausnarketa egiterakoan. Honek 2 ordu inguru irauten ditu eta saskibaloiko lehiaketa batean oinarritzen da.

Azkenik, ikertze lan ezberdinetatik eskuratutako teoria bildu da. Ikerlan horiek jakintzarako aurkikuntzak egitea helburu duten azterketak dira, non zerbait arretaz erabiliz edo behatuz ondorioak sortu dituzten (Euskaltzaindia, d.g.).

Prozedura

Ikerketa honi ekiteko pausu ezberdinak eman dira. Lehenik eta behin, ikastolan izandako lehenengo asteetan ikaslegoaren azterketa bat egin zen bere ezaugarriak eta jarrerak ezagutzeko, eta irakasleari asmoa azaldu zitzaion behaketa aurrera eramateko baimena eskatuz dokumentu baten bidez (1. eranskina). Ondoren, eguneroko bat jaso da ikasleen jokaerak behatu bitartean lehiakortasunarengatik emandako gertaera adierazgarriak biltzeko. Gainera, hura bete bitartean, Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin galderaz gidatutako elkarrizketa bat egin da bere ezagutzak, usteak eta pentsaerak jasotzeko, eta hura gertaerekin alderatzeko. Amaitzeko, jasotako guztia bildutako teoriarekin alderatu da hausnarketa bat egiteko.

EMAITZAK

Emaitzak jasotzeko egunerokoa, Gorputz Hezkuntzako irakaslearekin elkarrizketa, *Campeones* filma eta teoria izan dira kontuan.

Honekin ikusgarri geratu da esperientzietan planifikatu gabeko ikaskuntzak eman direla. Ikaskuntza hauek pixkanaka biltzen joaten dira eta ikasleen etorkizuneko jokaerak eta jarrerak eraikitzen dituzte (Tinning, 1992).

Arauk haustea

Katearen jolasean ari zirela ikasle bat harrapatua izan zen eta, irabazteko grinaz eta gertatutakoa onartzeko gogorik izan gabe, ikasle hura iheslari moduan jarraitu zuen “azkarrena naiz eta zuek mantsoenak” esan bitartean. Ezezik ere, askotan harrapatua izan zela aipatu ziotenean bakarrik, bere kontura, kideak harrapatzen hasi zen, inongo araurik errespetatu gabe (2. gertaera).

Ikasle horrek jarrera harekin protagonismo guztia lortu zuen, ikaskideen eta irakaslearen arreta harengana zuzenduta baitzeuden. Baina zergatik egingo ote zuen hori? Baliteke bizirauteko estrategia bat izatea, egunerokotasunean egin daitekeen bezala, kanpoko eragileengandik ihes egiteko (Liebel, 2007).

Gauzak horrela, noizean behin haurrek helduak bere onetik atera ditzakete eta limiteak bilatzen ari direla dirudi. Baina ez da horrela, jarrera egokia ez duen ikasle bat ez da gaiztoa, bakarrik ulertua izateko beharra du. Baina, jarrera desegoki baten eraginez arreta izaten dutelaz ohartzean, jokaera errepikatzen du (Roldán, 2016).

Oso gutxitan sakontzen da arreta eskatzeko zergatietan eta oso heldu gutxi ulertzen dute “jarrera desegokia” duten umeek beraien beharrak transmititzea bilatzen dutela. Gainera, tenstioz beteriko momentu horietan helduek ia ez dira enpatizatzen saiatzen benetan nola sentitzen diren edo zer behar duten ezagutzeko. Enpatizatuz gero, ikusiko lukete etenaldiak eragiten dituzten jarrera horien atzean mezu bat ezkututzen dela (Soler, 2018).

Areago, ikasleen amorrualdi horiei ez ikusiarena egitea ez da irtenbidea, ez dutelako apetarengatik jokaera hori izaten, laguntza eskatzeagatik baizik, haurrak ez dira ongi sentitzen eta helduen ulermena behar dute babestuta sentitzeko (Roldán, 2016; Soler, 2018).

Laburtuz, helduak adi egon behar dira haurren beharrei erantzuteko babesa senti dezaten eta arreta izateko jarrera horiek erabiltzeko beharra senti ez dezaten. Ikasleen “jokaera desegoki” baten atzean benetan behar dutenaren mezua ezkututzen da: heldurengandik babesa jasotzea (Soler, 2018).

Sufrimendua eta motibazioaren jaitziera

Gorputz Hezkuntzan sufrimendua pairatzeko era ezberdinak daude eta pairamen horren adibide hurrengoa dugu. Behin, armiarma jolasean ari zirela, eta jada lauzpabost ikasle harrapatu zeudela, normalean harrapatua lehenengotarikoetako bat izaten den ikasle bat harrapatua izan zen eta “mantsoa naiz” eta “tontoa naiz” bezalako hitzak esaten hasi zen, bere burua zigortuz (4. gertaera).

Irakasleak dioen bezala, “jolasetan askotan galtzen duten ikasleek ere jolasez aldatzeko eskatzen dute edota beste egun batean jolas horietako bat proposatzean kexatzen hasten dira”.

Aipatutako egoeran ikasleak sufritu egin du eta horrek jolasean jarraitzeko motibazioa jaitsi diezaioke. Jakin behar da alderdi psikologikoen eragina dutela jarduera fisikoaren praktikan (Román, 2014) eta lehiakortasunak eragin negatiboak izan ditzake hainbat ikaslen psikologian.

Hala ere, ikasle hura ez da izan munduan lehiarengatik sufritzen bakarra. Ikus daitekeenez, formakuntza-ereduak eragina du jarduera fisikoa bertan behera uztean eta gaur egun hura uzten duen %33,6ak formakuntza lehiakorra izan du, non xede nagusia irabaztea izan den (Román, 2014).

Areago, biztanleria gaztearen artean jarduera fisikoaren praktikaren beherapena nabaritzen ari da, praktika bertan behera uztearen indize handiena 12 eta 18 urteen bitartean izanez (Martínez et al., 2012).

Jarduera fisikoaren praktika-mailak jaitziera sufritu du egunean jarduera fisikoa 60 minutuz egitearen gomendioa gutxi betetzen delako (Martínez et al., 2012). Baina jaitziera hori txikiagoa izango litzateke Gorputz Hezkuntzako ikasgaia ikasturteetan zehar denontzat dibertigarriak edo gustokoak izango balira (Román, 2014).

Azkenik, Gorputz Hezkuntzako saioen inguruko hausnarketak egitea beharrezkoa dela dirudi, ikasleek jarduera fisikoa praktikatzeko azkeneko zergatia eskola baita (Román, 2014).

Emozioen hustuketa

Egun batean irakasleak proposatutako jolas guztiak harrapaketakoak izan ziren eta jolas horietan ikasle guztiak izan ziren harrapatzaile eta iheslari. Hala ere, ikasle batek ez zuen harrapatua izan nahi eta harrapatua izan zen bakoitzean negarrez hasten zen eta jolas-eremutik ateratzen zen. Baina, jolasten jarraitzera animatzen genuen bakoitzean harrapaketa bat egitea lortzen zuen eta barrez hasten zen hura ospatzen. Hori nahikoa ez balitz, bat-batean bere lagun minak harrapatu zuen eta ikaslea negarrez hasi zen pixkanaka haserretu bitartean. Haserretu zenean, negarrez, lagunaren atzetik joan zen hura jo nahian eta irainduz (9. gertaera).

Emozioak errealitatean harremanetan jartzeko bideak dira eta egoeraren arabera aldatzen doaz, etsipenetik poz handira edota aspermenetik urduritasunera (Samper, 2014), baina kasu honetan azkarrak izan dira eta intentsitate handiarekin.

Horrelako emozioen gora beherak ikasle batek jolasak intentsitate handiz bizitzen dituelako edo emozioak kontrolatzeko zailtasunak dituelako izan daitezke. Hala, aldaketa horrei arreta eman behar zaie kausa baliogabeengatik emozioen aldaketa konstanteak eta bizkorrak, emozioen kontrol eskasak eta frustrazioen tolerantzia baxuak emozioen ezegonkortasuna erakuts dezakete (Escudero, 2016).

Ezegonkortasun emozionalak barneko jokaera desegokiak eragiten ditu, estimuluari maila bereko erantzuna emateko zailtasuna bezala. Eta gaur egun kezkarria izaten hasi da emozionalki desdoituriko jarrerak pairatzen ari diren haurren kopuruaren hazkundera, egokitzapen sozialean oztopatzen dutelako (del Barrio, Moreno eta López, 2001).

Ikasle hauei emozioak kontrolatzen laguntzea komeni eta horretarako gomendio batzuk hurrengoak dira (Escudero, 2016): erlaxazioa eta arnasketa-teknikak, autoestima landu, frustrazioaren tolerantzia handitu eta yoga praktikatu.

Agresibitatea

“Los Amigos” adimen-atzerapena duten kideez osatutako saskibaloiko talde bat da eta txapelketa batean lehiatzen ari da. Honakoan, Cuencaraino mugitu da partidu bat jokatzeko. Partidua aurrera doala “Los Amigos” taldea galtzen ari da eta entrenatzailea kexatzen ari da aurkari batek zailtasunik ez duela argudioarekin eta bere taldeko batek aurkaria baliogabetzea eskaini dio. Entrenatzaileak bere jokalaria jokoan sartzen du eta horrek aurkaria jotzen du partidutik kanpo utziz (Fesser, 2018).

Taldeak horrek entrenatzailea frustratua ikusi du eta horri konponbidea emateko oldarkortasuna erabili du, taldeari garaipena lortzen lagunduz. Hemen “indartsuenaren legea” geratzen da ikusgarri.

Lege horri dagokionez, hautespen naturalaren teoriarekin batera Darwinek hobekien prestatutako zeuden espezieen biziraupena bermatzen zuten legeak planteatu zituen. Horretan espezieen arteko lehiaketa moduko prozesua ezartzen du, non, lehen esan bezala, hobekien prestatutako espezieek errazago izango zuten egokitzea besteek baino, eta “egokienaren legea” edo “indartsuenaren legea” ezarri zuen (Luyando, 2015).

Era berean, jokaera erasotzailea ikasle batzuen erantzuna izaten da egoera gatazkatsu baten aurrean, hau da, bizirauteko lehiatu behar duenean (Luyando, 2015; Rodríguez, 2014).

Bestalde, oldarkortasuna gizakiok jaiotzatiko denaren Freuden teoria baztertua izan da eta, gaur egun, haurrek jokaera horiek ikasten dituztela diote. Jarrera horiek eragiten dituzten faktoreak dira familian jasotzen den hezkuntza desegokia, baloreen eta printzipio moralen gabezia, bizikidetzako arazoak eta telebistaren eta bideojokoaren eragin negatiboa (Rodríguez, 2014).

Hala ere, Darwinen arabera bizirauteko estrategia hobea badago eta hura bizikidetzara, denen arteko kooperazioa (Luyando, 2015) eta hura da ikasleei irakatsi behar zaiena.

Bazterkeria

Irakaslearekin elkarrizketa egiteko garaian “Lehiatzeko orduan ikasle baztertuak ikusi dituzu? Nola egiten diozu aurre egoera horri?” galderak luzatu nizkion eta hau izan zen haren erantzuna: “ikasgelaren eta taldearen arabera ikusi izan ditut. Egoera horietan lehenengo bazterketa gauzatzen ari diren ikasleei bronka botaz eta ondoren bazterketa jasan duenarekin hitz egin, babestua sentiaraziz eta berau gozaten zein animatzen saiatuz”.

Gorputz Hezkuntzako saioetan ikastaldearen harremanak testuinguru ezberdin batean ikusten dira eta bazterkeria badagoela jakina da, askotan ikasleren bat eure burua baztertzen du jardura gustoko ez duelako, lesionaturik dagoelako, edo kideekin gustora sentitzen ez delako.

Hala ere, kide batek edo taldeak beste kide bat baztertzea gerta daiteke eta eginkizun hau errepikakorra bada, min egiteko asmoarekin, eta boterea ikusten bada

bazterzailearen eta baztertuaren artean jazarpen kasu baten aurrean egon gaitzke (Vveinhardt eta Fominiene, 2020).

Berdinen arteko tratu txarra ez da kontu berri bat eta gizartearen kezka bilakatu da. Animaliek jarrera erasotzaileak erabiltzen dituzte lurraldea edo janaria defendatzeko, baina gizakiak, aldiz, bortitzak izan daitezke beharrik gabe, besteak mintzeko, jostetarako edo boterearen kudeaketa okerrarengatik (Armero, Bernardino eta Bonet, 2011).

Areago, jazarpena ez du zertan fisikoa izan behar, harreman sozialekoa ere izan daiteke eta, hitzezko erasorik erabili gabe, kide bat mintzeko asmoz baztertzea erasotzeko era bat da (Vveinhardt eta Fominiene, 2020).

Hortaz gain, kasu hauetan hiru rol egoten dira: erasotzailea, biktima eta ikuslea. Alde batetik, erasotzailea taldearren liderra izaten da. Beste alde batetik, biktima ez da oso ospetsua izaten eta lotsakorra izaten da, nortasun ahularekin edo ezaugarri fisiko ezberdin batekin. Bestetik, ikusleak edozein ezaugarri izan dezake, baina erasotzaile bihurtzen da laguntzarik ez ematean (Armero, Bernardino eta Bonet, 2011).

Erasoa kirolaren kulturaren parte da, baina testuinguru honetan jazarpena ekiditeko aukerak aztertzea esanguratsua da (Vveinhardt eta Fominiene, 2020). Seinalerik egotekotan arreta jarri eta laguntza eman behar da irakasleen beharra baita konpontzen saiatzea eta ikasleen eskubidea baita seguru sentitzea eskolan (Armero, Bernardino eta Bonet, 2011).

EZTABAIDA

Lehiakortasuna gizarteak duen arazo bat dela argi dago eta komunitate osoaren parte hartzea beharrezkoa izango litzateke hori aldatzeko. Baina eskolatik lantzen hastea aurreranzko pausu bat izango litzateke.

Hasteko, aipagarria da irakasleak hizkera zaindu beharko lukeela. Kirol taldeetan entrenatzailearekin gertatzen den bezala, Gorputz Hezkuntzako saioetan irakaslea irudi garrantzitsua da (Marques, Sousa eta Cruz, 2013) eta berak irabaztean enfasia jarriz gero ikasleek irabazi nahi izango dute.

Jarraitzeko, erabilitako jolas-motak esanguratsuak izango dira. Jolasekin bidalitako mezuak nahi gabe eman daitezke, baina meheak eta gehigarriak izaten dira eta, eraginez, etorkizuneko jarrerak edo jokaerak eraikitzen dituzte (Tinning, 1992; Rodríguez, 2017).

Hortaz gain, jolasen aldaerek parte hartzaileen bizipen emozionala aurreratzeko gaitasuna dute. Izan ere, nagusiki, emozio positiboak bizitzen dira jolas egoera soziomotoretan eta lehiarik gabekoetan (Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020). Baina markagailu bat ezartzean, emozioen intentsitateak altuagoak izan daitezke.

Pertsonak euren burua lorpen-egoera batean ikusten dutenean gaitasuna erakutsi behar dutela sentitzen dute arrakasta ala porrota izan dutela adierazteko (Hellín, 2007). Hala ere, jakinarazi behar da galtzeak ez duela porrota berekin ekartzen, ezta irabazteak arrakasta ere (Durán, 2013).

Hala ere, jarduera ez da gatazkaren moduko zerbait bezala hartu behar, arau adiskidetsu, justu eta erabilgarri batzuen praktika bezala baizik (Muñoz-Arroyave, Lavega-Burgués, Costes, Damian eta Serna, 2020; Durán, 2013). Jardueren edo jolasen izaera lehiakorrek ez du zertan parte hartzaileen garapen moralean kalte egin beharrik helburu bat bezala erabili beharrean baliabide moduan erabiliko balitz (Águila, data gabe).

Eraginez, guzti honek galdera batzuk egitera bultza gaitzake: zer egin behar da lehiarekin? Onartu, saihestu ala landu?

Esan bezala, lehiakortasunak ondorio kaltegarriak ditu eta horiek erantzuna jaso dezakete ala ez, konponduz ala ontzat emanez, baina ondorio onuragarriak ere izan ditzake eta horiek indar daitezke.

Ondorioz, irakasleak saiatu behar dira lehiakortasun sana sustatzen, honek saiatzera, ikastera eta progresioa egitera laguntzen duelako eta irakasleen ardura da

ikasleak lehiakortasun sano batean hezitza, non esfortzua sarituko den emaitza saritu beharrean (Durán, 2013).

Horretarako ere, irakaskuntza-ereduaz hausnartzea komeni da. Aitzitik erabili da lehia gorputz hezkuntzako saioetan eta erabilitako metodo tradizionalak arazo asko eman ditu. Hala, Kirol-Hezkuntzako metodoa praktikan jar daiteke ikasleen behar psikologikoak asetzeko eta kiroltasuna sutatzeko (Méndez-Giménez, Fernández-Río eta Méndez-Alonso, 2015).

PROPOSAMENA

Gorputz Hezkuntzako saioetan jarduera lehiakorrak landu bitartean hainbat balore lantzea badago, errespetua, enpatia eta zintzotasuna bezala. Horretarako, ikasle guztien parte hartzea sustatzea ongi legoke eta Kirol-Hezkuntza landu.

Kirol-Hezkuntza benetazko kirol-esperientziak estimulatzeko asmoarekin sortutako irakaskuntza-eredu bat da. Eta ikasle guztiei aukera berdinak eskaintzen dizkie gai eta kirolean jantziak izan daitezen eta praktikarekin praktikarekin bero daitezen (Calderón, Hastie eta Martínez de Ojeda, 2010).

Eredu horren itxura lehiakorrak lehen aipatutako ondorio kaltegarriak eragin ditzake, baina landu ahala jolas garbia sustatzen du eta horrek laguntzen du ikaslearen motibazioa igotzen, autonomia garatzen, harremanak sustatzen, etab. (Méndez-Giménez, Fernández-Río eta Méndez-Alonso, 2015)

BIBLIOGRAFIA

- Agüero-SanJuan, S. (2015). El concepto de hacer trampa en el deporte organizado. Un inventario temático de problemas. *FairPlay, Revista de Filosofía, Ética y Derecho del Deporte*, (7), 155-181.
- Águila, C. (data gabe). *Introducción general El deporte, un reflejo de la vida social*.
- Amat, M. eta Batalla, A. (2000). Deporte y educación en valores. *Aula de innovación educativa*, 91, 10-13.
- Andueza, J. A. (2015). *Educar las relaciones interpersonales a través de la educación física en primaria* [Tesi doctorala, Universitat de Lleida]. Google akademikoa.
- Armero, P., Bernardino, B. eta Bonet, C. (2011). Acoso escolar. *Pediatría Atención Primaria*, 13(52), 661-670.
- Calderón, A., Hastie, P. eta Martínez de Ojeda, D. (2010). Aprendiendo a enseñar mediante el Modelo de Educación Deportiva (Sport Education Model). Experiencia inicial en Educación Primaria. *Cultura Ciencia Deporte*, 5(15), 169-180.
- Carrillo, M., Padilla, J., Rosero, T. eta Villagómez, M. S. (2009). La motivación y el aprendizaje. *Alteridad*, 4(1), 20-32.
- Casado, V. (2010). "Curriculum oculto". *Elsevier*, 42(1), 1-4.
- del Barrio, V., Moreno, C. eta López, R. (2001). Evaluación de la agresión y la inestabilidad emocional en niños españoles: su relación con la depresión. *Clínica y salud*, 12(1), 33-50.
- Devís, J. (2018). Los discursos sobre las funciones de la educación física escolar. Continuidades, discontinuidades y retos. *Revista Española de Educación Física y Deportes*, 423, 121-131.
- Durán, J. (2013). Ética de la competición deportiva: valores y contravalores del deporte competitivo. *Materiales para la Historia del Deporte*, (11), 89-115.
- Escudero, M. (2016). *Inestabilidad emocional: cuando las emociones suben y bajan*. Centro Manuel Escudero
<https://www.manuelescudero.com/inestabilidad-emocional-cuando-las-emociones-suben-y-bajan/> -tik

Estévez, E. (2005). *Violencia, victimización y rechazo escolar en la adolescencia* (tesi doktoral). Universitat de Valencia, Valencia.

Euskaltzaindia (data gabe). Gorputz. *Euskaltzaindiaren hiztegia*-n. 2021eko martxoaren 15ean hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/es/?sarrera=gorputz&antzekoak=e&option=com_hiztegia&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai

Euskaltzaindia (data gabe). Hezkuntza. *Euskaltzaindiaren hiztegia*-n. 2021eko martxoaren 15ean hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/es/?sarrera=hezkuntza&antzekoak=e&option=com_hiztegia&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai

Euskaltzaindia (data gabe). Ikerlan. *Euskaltzaindiaren hiztegia*-n. 2021eko uztailaren 5ean hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/es/?sarrera=ikerlana&antzekoak=e&option=com_hiztegia&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=es-ES&bila=bai

Euskaltzaindia (data gabe). Lehia. *Euskaltzaindiaren hiztegia*-n. 2021eko martxoaren 16ean hemendik berreskuratua: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=lehia&antzekoak=e&option=com_hiztegia&view=frontpage&layout=aurreratua&Itemid=410&lang=eu-ES&bila=bai

Eusko Jaurlaritz (2015). 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta Kultura Saila; Vitoria-Gasteiz.

Eusko Jaurlaritz (2015). 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila; Vitoria-Gasteiz.

Fesser, J. (2018). *Campeones* [Filma]. Morena Films.

García, F. J. eta Juan, C. (2000). El rechazo entre iguales en el contexto de la actividad física-deportiva. *II Jornadas de Psicología de la Actividad Física y el Deporte de la Comunidad Valenciana*, 99-107.

García, S., Sánchez, P. eta Ferriz, A. (2021). Metodologías cooperativas versus competitivas: efectos sobre la motivación en alumnado de EF. *RETOS. Nuevas Tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, (39), 65-70.

- Gimeno, J. (1988). *El currículum: una reflexión sobre la práctica*.
- Gimeno, J. (2010). ¿Qué significa el currículum?(adelanto). *Sinéctica*, (34), 11-43.
- Hellín, G. (2007). *Motivación, autoconcepto físico, disciplina y orientación disposicional en estudiantes de educación física* (tesi doctorala). Universidad de Murcia, Murcia.
- Jiménez, M. (2011). ¿Qué es el currículum? *Pedagogía magna*, 10, 98-108.
- Jurado Jiménez, M. D. (2011). El diario como un instrumento de autoformación e investigación. *Revista Qurriculum*, 24, 173-200.
- Lagardera, F. (1999). La lógica deportiva y las emociones. Sus implicaciones en la enseñanza. *Apunts. Educació Física i Esports*, 56, 99-106.
- Liebel, M. (2007). Paternalismo, participación y protagonismo infantil. *Participación infantil y juvenil en América Latina*, 113-145.
- Loza, M. J. eta Frisancho, S. (2010). ¿Por qué Pegan los Niños? Creencias sobre la Agresividad Infantil en un Grupo de Profesoras de Educación Inicial. *Revista Peruana de Investigación Educativa*, 1(2), 59-86.
- Luyando, J. (2015). Las leyes positivas de Darwin. *Revista de Analistas en Formación de la Asociación Psicoanalítica Mexicana*, (2), 42-49.
- Marques, M., Sousa, C. eta Cruz, J. (2013). Estrategias para la enseñanza de competencias de vida a través del deporte en jóvenes en riesgo de exclusión social. *Apunts. Educación Física y Deportes*, 2(112), 63-71.
- Martínez, A. C., Chillón, P., Martín-Matillas, M., Pérez, I., Castillo, R., Zapatera, B.,... Delgado-Fernández, M. (2012). Motivos de abandono y no práctica de actividad físico-deportiva. *Cuadernos de Psicología del Deporte*, 12(1), 45-54.
- Méndez-Giménez, A., Fernández-Río, J. eta Méndez-Alonso, D. (2015). Modelo de educación deportiva versus modelo tradicional: efectos en la motivación y deportividad. *Revista Internacional de Medicina y Ciencias de la Actividad Física y el Deporte*, 15(59), 449- 466.
- Muñoz-Arroyave, V., Lavega-Burgués, P., Costes, A., Damian, S. eta Serna, J. (2020). Los juegos motores como recurso pedagógico para favorecer la afectividad desde la educación física. *Retos*, 38, 166-172.

- Navarro, R., Cons, M. eta Eirín, R. (2018). Efecto de una unidad didáctica basada en juegos competitivos en la motivación, necesidades psicológicas básicas y disfrute en alumnado de Educación Primaria. *Sportis. Revista Técnico-Científica del Deporte Escolar, Educación Física y Psicomotricidad*, 4(1), 111-125.
- Osasun Ministeritza (2020). *¿Qué son las emociones? Bienestar emocional* <https://bemocion.sanidad.gob.es/emocionEstres/emociones/aspectosEsenciales/queSon/home.htm> -tik.
- Pérez, J. (2008). *Definición de motivación*. Definición.de <http://definicion.de/motivacion/#ixzz4liVPJSdg> -tik.
- Rodríguez, I. (2014). *La ley del más fuerte*. Padres y Colegios <http://padresycolegios.com/La-ley-del-mas-fuerte/> -tik.
- Rodríguez, M. E. (2017). Currículum, educación y cultura en la formación docente del siglo XXI desde la complejidad. *Educación y humanismo*, 19(33), 425-440.
- Roldán, M. J. (2016). *Niños que llaman la atención: niños que necesitan tu comprensión*. Etapa Infantil <https://www.etapainfantil.com/ninos-llaman-atencion-necesitan-comprension> -tik.
- Román, A. M. (2014). El abandono de la práctica físico-deportiva: factores, causas y motivaciones. *EFDeportes.com*, 199(1).
- Soler, R. (2018). *Los niños no llaman la atención, reclaman atención*. Cuerpomenta https://www.cuerpomenta.com/blogs/ramon-soler/causas-mal-comportamiento-ninos_1582 -tik.
- Spaemann, R. (2008). El sentido del sufrimiento. *Atlántida*, (15).
- Tinning, R. (1992). *La educación física, la escuela y sus profesores*. Universidad de Valencia.
- Uquillas, S. (2015). Acercamiento al currículum. *Educación, Arte, Comunicación: Revista Académica Investigativa y Cultural*, 4. 8-15.
- Vílchez, N. G. (2004). Una revisión y actualización del concepto de Currículo. *TELOS. Revista de Estudios Interdisciplinarios en Ciencias Sociales*, 6(2), 194-208.

Vveinhardt, J. eta Fominiene, V. B. (2020). Gender and age variables of bullying in organized sport: Is bullying “grown out of”? *Journal of Human Sport and Exercise*, 15(4), 747-761.

ERANSKINAK

1. eranskina



Behaketarako baimena

Idoia Urruzuno, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko ikaslea, 2020 / 2021 ikasturtean Lehen Hezkuntzako Practicum III-a burutuko du. Era berean, Gradu Amaierako Lana garatuko du Gorputz Hezkuntza eta curriculum ezkutua gaia oinarri izanda. Gai horrekin lotuta, lehiakortasuna ere nabaria izango da eta horien kudeaketaren behaketa egiteko asmoa du praktikaldian zehar.

Era horretan, ni, praktikaldiko eskolako Gorputz Hezkuntzako irakaslea, behatua izan naitekeen galdetu dit, nire datuak betiere anonimotasunean gordeta izango direlarik. Hori horrela, ondorengoa adierazten dut:

bai, onartzen dut behatua izatea. ez dut onartzen behatua izatea.

Irakaslearen sinadura (nahi izatekotan):



Ikaslearen sinadura:



Andoaingoan, 2021eko urtarrilaren 21an.